

HITZ BITAN**FUTBOLA****Frantziako Ligak gaur erabakiko du zer egingo duen Malaja kasuak izan ditzakeen ondorioekin**

Egun batez atzeratu du Frantziako Futbol Liga Profesionalak Malaja kasuaren gainean hartu beharreko erabakia. Frantziako Estatu Kontseiluak abenduaren 30ean Lilian Malaja saskibaloio jokalarari poloniarrari arrazoia eman zion horrek egingandako eskakizunean, eta Malajak atzerritar postua betetzeari utzi dio, komunitario postua betetzeko. Bere garaian Bosman kasuarekin gertatu bezala, litekeena da Malaja kasuak orain Europako kirolak iraultzea, Poloniak bezala, Europa ekialdeko, Afrikako eta Karibeko beste herrialde batzuk ere akordioa sinatuta dutelako Europako Batasunarekin.

TXIRRINDULARITZA**Mallorcako Itzulian hasiko du Euskaltel-Euskadik aurtengo denboraldia**

Mallorcako Itzulian hasiko du Euskaltel-Euskadik aurtengo denboraldia, etzi. Taldea honakoa izango da: Gorka Arrizabalaga, Mikel Artxe, Ruben Diaz de Cerio, David Etxebarria, Lander Euba, Julen Fernandez, Dioni Galparsoro, Gorka Gerrikagotia, Gorka Gonzalez, Roberto Laiseka, Iñigo Landaluze, Alberto Lopez de Munain, Egoi Martinez, Alberto Martinez, Aitor eta Iosu Silloniz eta Joseba Zubeldia.

Mikel Astarlozak Andy Flickinger taldekidea izango du bikote Euskadiko Sei Orduetan

Andy Flickinger txirrindulari frantziarra izango da Mikel Astarlozaren bikotea Euskadiko Sei Orduetan, otsailaren 8an. Pasaitarra ilusioz gainezka dago, eta bere bikote-kidea pistari «oso ona eta azkarra» dela esan zuen.

OLINPISMOA**Britainia Handiak 2012ko Olinpiar Jokoak antolatzea ez duela merezi dio Colin Jacksonek**

Britainia Handiak 2012ko Olinpiar Jokoak antolatzea ez duela merezi esan zuen atzo Colin Jackson atleta britainiarra. Jacksonen arabera, «ez du jokoak antolatzeko beharrezko pasioa».



MONDELO / EFE

Zortzi euskal txirrindulari ariko dira aurten iBanesto.com taldean

iBanesto.com taldeak atzo aurkeztu zituen Madrilan 2003ko denboraldia osatuko duten txirrindulariak, eta horien artean zortzi euskal ziklista: Jose Luis Arrieta, Jon Odriozola, Aitor eta Unai Osa gipuzkoarrak, Vicente Garcia Acosta, Koldo Gil eta Xabier Zando nafarrak eta Rafa Mateos bizkaitarra. Eusebio Unzué kirol zuzendariak

adierazi zuenez, denboraldi honetan «Aitor Gonzalezen bat» aterako den itxaropena dauka: «Gure gazteetako bat aurten lehertzea espero dut», esan zuen. Helburua beste behin Frantziako Tourra, Italiako Giroa eta Espainiako Vuelta direla baieztatu zuen, eta horietako batean podiumean izatea espero duela.

NBA. Michael Jordanek partida kaskarra egin zuen New Jerseyren aurka, zortzi puntu bakarrik lortuta**Erredakzioa | DONOSTIA**

Karl Malone eta Michael Finley haserre daude NBArekin, heldu den otsailaren 9an Atlantan jokatu duten Izarren partidari parte hartuko ez dutelako, eta horren aurka protesta egiteko modua aurkitu dute: norgehiagoka ikusgarriak egin, bata besteari atzetik. Atzoko jardunaldia ez zen salbuespena izan, Malonek eta Finleyk partida bikainak egin baitzituzten. Lehenak, 20 puntu eta 11 errebotu lortu zituen, eta Utah Jazz bere taldeak 95-71 irabazi zion Portland Trail Blazersi. Malonek, gainera, Matt Harpringen eta John Stocktonen laguntza izan zuen. Harpringek 21 puntu lortu zituen, eta Stocktonek 13 puntu eta 11 asistentzia. Utahri jokalaririk bakarrik falta zitzaion atzoko partidarako, bakarrik baina garrantzitsua oso. Izan ere, Jerry Sloan entrenatzaileak harmailatik zuzendu zuen taldea, zazpi partidako zigorra bete behar baitu, epaile bat bul-tzatzeagatik.


Houstonen, aldiz, Finleyk eta Dirk Nowitzkik joko erakustaldi bikaina egin zuten. Lehenak, 29 puntu egin zituen —zazpi hiruko tartean—, eta bigarrenak,

Izarren partidari lekua zutela erakutsi dute Malonek eta Finleyk, joko ikusgarria eginda

34. Horrelako zenbakiarekin Dallas Mavericksek ez zuen inolako arazorik izan Houston Rocketsei nagusitasun osoz irabazteko, 104-81.

Kenyon Martin, gehiegi Washingtonentzat

Jardunaldiko beste partidei dagokionez, New Jersey Netsek 86-78 irabazi zion Washington Wizardsi. Kenyon Martin izan zen partidako izarra, New Jerseyko pibota jaun eta jabe izan baitzen, 19 puntu eta 21 errebotu lortuta. Lehiako beste protagonista Michael Jordan izan zen. Jordan aulkitik ateratu zen, eta zortzi puntu bakarrik egin zituen, New Jersey jokatu duen 29 partidetan lortu zuen marka makalena. Continental Airlines pabiloian jokatu duen 28 partidetan batez besteko bikaina izan zuen Jordanek: 29, 9 puntu. Atzo, aldiz, oso makal aritu zen, batez besteko horretatik oso urrun. Jordanek, hala ere, Finleyk eta Malonek ez duten pribilegioa izango du, Izarren partidari jokatu duen baitu.



BILL KOSTROUN / AP

Michael Jordan, jaurtitzen, New Jerseyko Lucious Harrisen aurrean.